



Eraiki dezagun maketa bat

Gai honekin zerikusia duten arloak

- MATEMATIKA.
- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- TEKNOLOGIA.


HELBURUAK

- Bi dimentsiotan adierazitako gune bat hiru dimentsiotan berreraikitzea.
- Sestra-kurbak interpretatzen jakitea.


MATERIALAK

- ◆ Berreraiki nahi dugun gunearen fotokopia handiagotuak.
- ◆ Kortxo edo kartoizko xaflak.
- ◆ Kola.
- ◆ Koloretako margoak.
- ◆ Artaziak eta *kutter* bat.
- ◆ Kartulinak.

Pausoz pauso:




1. Berreraiki gura dugun gunearen fotokopia handitua itsatsiko dugu kartulina batean.




2. Oinarria margotu behar dugu; baina hori egin aurretik, zenbait ezaugarri erabaki behar dira: itsasoa, ibaia, mendiak... zein koloretan margotuko dituzue? Eta, zero eta ehun arteko tartea? Normalean, zenbat eta gorago joan, orduan eta kolore ilunagoak erabili ohi dira.






Oinarria ehun metroko kotaraino margotuko dugu soilik, gainontzekoak maketaren hurrengo solairuaren azpian geratuko dira eta.



3. Beste fotokopia batean ehun metroko kotatik berrehunekora bitarteko tartea margotu eta gero, kartulina baten gainean itsatsiko dugu; jarraian ehun metroko kotatik ebakiko dugu.

Ondoren kutter batez ehun metroko kotari dagokion kortxoa ebaki. Gauza bera egin beharko dugu berrehun, hirurehun... eta abarreko kotekin. Amaieran itzelezko maketa lortuko dugu. Oinarrizko egitura hau kontuan hartuz, eskaiolazko estaldura baten bidez, borobildu eta buka dezakegu. Horretarako,



egurrezko oinarri batean (metalezko oihala bat iltzatzeko adinako lodiera duena) itsatsiko dugu maketa. Oihala maketako gainazalera egokitzeko, ebaki eta burdin hariz josi. Gero, eskaiolaz bustiriko oihala ezarri. Lehortutakoan, margotu eta nahi beste detaile gehi diezazkiokegu.